

## NIRE BIZITZARENAK ETA ALTZAKO BALLARA AITATUZ

---



### AIZAN I, MAÑONTXI - doinua.

On egin naiean beti  
aginduta lagun bati  
askotan larri ibiltzen gera nai izanagati  
jarri litezke edoki  
nundikan asi baneki  
al badet ori eingo dedala lendikan badaki

Bertsoak dauzkat goguan  
nik gaztetako moduan  
ori ainbeste maite dedanik ez daukat munduan  
nere lagunen onduan  
iñoiz kantatzen genduan  
erretiroa izaten gendun guk azken orduan

Gaztetan izan genduna  
sobra gure osasuna  
aintzat ez gendun artzen orduan esaten zizuna  
orduko eginkizuna  
gozatzea al genduna  
pena daukagu zartutakoan urte aiek juna

Orain pentsatzen jarrita  
zartzarua etorrita  
orduan gaizki egin gendula gaude igarrita  
ikasiz danan berrita  
etxera zintzo sarrita  
ez degu beintzat orain entzuten len ainbat errita

Zerbait zartu garenean  
aspertu gera lanean  
al dan ondona bizi nai nuke umore onean  
sasoiko nintzanean  
lana nik leku danean  
buru makurka ibilia naiz besten esanean

Orain bajatzen asita  
ez det len ainbat grazita  
al dedan arte lanik egin gabe nai nuke bizita  
kalera sarri bisita  
lanari oso utzita  
nere saria daukat ilero len irabazita

Dirua degunean jai  
ibilitzen gera alai  
geroko asko gogorau gabe bizituaz lasai  
begiratu gabe gauzai  
bukaera eman pozai  
gero etxean egon bearra ila bukatu zai

Gaia nai nuke aldatu  
Altzari bertsoak kantatu  
al badet beintzat ez nioke nai iñori faltatu  
pasadizoak kontatu  
ori ez bait da pekatu  
gure denboran gertatu dana zertako ukatu

Pena ematen dizuna  
sarri pentsatzen dezuna  
nola eduki dezake batek olako zentzuna  
erria saltzera juna  
ala daukat nik entzuna  
gaur bailara daukagu Altza erri beartzuna

Gogua daukat jartzeko  
ori buruan artzeko  
askotan gauza gutxi naikoa okerra sortzeko  
sarritan aren antzeko  
ez aurreko eta ez atzeko  
zeinen baimena izan zun arek erria saltzeko

Au ere nai nuke esan  
jendeak jakindu dezan  
nere ustetan buru aundirik ark ez zuen izan  
orra nolako preskisan  
gaurko askoren gisan  
len nagusia zegoen eta morria gelditu zan.

Egia nai det kontatu  
oraindik etzait bukatu  
aurrera ere segi nai diot naiz pixkat nekatu  
lanean nai det gozatu  
lagun artea osatu  
denok bilduta kultur etxe au bear degu goratu

Orain daukagu aukera  
ondo saiatzen bagera  
gero penarik izan ez dedin kontuak atera  
sartu gaitezen lanera  
al bada danok batera  
Altza bailara jaso dezagun aundien parera

Segi bideari zuzen  
ontan saiatu gaitezen  
alperrikan da gero esate au egin bazen  
orra gaur nola gatozen  
alkar ikusteko pozen  
beartutzean badakizute ni nun bizi naizen.

*(1995eko Azaroan)*  
*Bixente Barandiaran*